

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ogasunak 14,5 milioi euro inguru bueltatu dizkie gaur 12.600 zergadun baino gehiagori

Orain arte, 2012ko Errenta Kanpainan 189 milioi euro ordaindu dira

Viernes, 23 de agosto de 2013

[Nafarroako Ogasunak](#) 14.423.913 euro ordaindu dizkie gaur aitortzen egin duten 12.651 zergaduni. Beraz, guztira 219.583 aitortzen itzuli dituzte, itzuli beharrekoan %95 inguru.

Horretarako 189.255.454 euro jarri dituzte: 185.917.462 euro eskudirutan ordaintzeko (zergadunentzako diru-sartzeak) eta 3.337.991 euro zergadunek administrazioekin edo epaitegiekin dauzkaten zorrak konpentsatzeko.

2012ko Errenta Kanpaina ekainaren 25ean amaitu zen eta guztira 326.706 aitortzen jaso ziren; dena den, aitortzenak itzultzeko legezko epea amaitutakoan, hau da, abenduaren 25ean, kopuru hori handiagoa izango da. Nafarroako Ogasunak gainerako aitortzen negatiboak (aitortzenen %5 baino gehixeago) pixkanaka ordainduko ditu.

PFEZ ordaintzeko lehenbiziko epean, uztailean, 57.698.402 euro jaso dira: aitortzena egin eta emaitza positiboa izan duten 79.928 zergadunek zenbatekoaren %50 edo %100 ordaindu dute.


2012ko Errenta Kanpaina

2012ko Errenta Kanpaina aurrekoan baino gehiago erabili da Nafarroako Ogasunaren web-orria proposamenak kontsultatzeko, baita bitarteko telematikoa ere proposamen horiek bideratzeko.

Izan ere, 215.000 lagun sartu dira web-orrian hainbat izapide egiteko, aurreko kanpaina baino %66 gehiago. Zehazki, 110.000 lagunek aitortzena inprimatu dute, 42.000 lagunek datu fiskalak kontsultatu dituzte eta 30.000 lagun inguruk aitortzena bera egin dute.

Gainera, Nafarroako Ogasunak bidalitako proposamen gehienak zergadunek onartu egin dituzte: %89,35, hau da, hamarretik bederatzire.

Zergadunek aitortzena aurkezteko erabili duten bideari dagokionez, 49.083 aitortzen modu telematikoa egin dituzte, 29.777 Ogasunak dauzkan sei bulegoen bitartez, 72.612 erakunde kolaboratzaileetan (20



Nafarroako Ogasuneko bulegoa.

daude) eta 5.888 eskuz bete eta Ogasunean entregatu dituzte.

Aitorpenen gestioari dagokionez, 33.286 hitzordu eman dira: 15.723 telefonoz, 17.319 internetez eta 244 bulegoan. Lehenbizikoz, telefonoz baino hitzordu gehiago eman dira internetez.

Hitzordu horiek guztiak honela banatu dira: 17.090 Iruñean, 4.230 Tuteran, 4.219 Burlatan, 4.076 Barañainen, 1.845 Lizarran eta 1.826 Tafallan.